


Langabeziaren hileko bilakaera, generoaren arabera



2025eko apirilean, berriz ere behera egin du Lanbiden erregistratutako langabeen kopuruak, eta **6.492 langabe zenbatu dira Donostian (2.827 gizon eta 3.665 emakume), martxoan baino 123 pertsona gutxiago.**

- Langabezia **% 1,9 egin du behera martxoaren aldean.**
- Langabezia **% 5,2 egin du behera 2024ko apirilaren aldean.**

Apirilean emakume langabeen eta gizon langabeen kopuruak, martxoarekin alderatuta, behera egin duen arren, jaitsiera hori nabarmenagoa da gizonen kasuan (% -3,2; % -0,8emakumeen kasuan).

Aurreko urteko hilabete beraren aldean, langabeen kopuruak behera egin du ere, % 5,2 (357langabe gutxiago). 2024ko apirilarekin alderatuta, gizon langabeen eta emakume langabeen kopuruak behera egin badu ere, gizonen langabeziak nabarmen jaitsiera handiagoa izan du emakumeena baino (% - 7,7gizonetan eta % -3,2emakumeetan).

	Donostia	Gipuzkoa	EAE
Langabezia indizea	7,1	7,7	9,5
Gizonen langabezia indizea	6,4	6,5	8,0
Emakumeen langabezia indizea	7,8	9,0	11,1
Genero arrakala	1,41	2,48	3,03

Lanbiden erregistratutako langabezia-indizea % 7,1ra jaitsi da (7,4 otsailean eta 7,2 martxoan) % 6,4 gizonen artean eta % 7,4emakumeen artean (ehuneko 1,41 puntuko genero-arrakala).

	Langabezia indizea	EAErekiko aldea
Gipuzkoa	7,7	-1,8
Donostia	7,1	-2,4
Bizkaia	10,3	0,8
Bilbo	12,0	2,5
Araba	10,8	1,2
Gasteiz	11,1	1,6

Lurraldeen arteko konparaketan, Lanbideko datuen arabera, **Gipuzkoa eta Donostia dira EAEn langabezia-indize txikiena duten lurralde historiko eta hiriburua.**

		Hiletik hilerako aldaketa	Urtetik urterako aldaketa
Langabezia totala	6.492	% 100	% -1,9
Gizonezkoak	2.827	% 44	% -3,2
Emakumezkoak	3.665	% 56	% -0,8
Gipuzkoa	28222	% -0,9	% -3,1
EAE	106.811	% -1,4	% -2,5

Martxoaren aldean, langabeen kopuruak behera egin du Gipuzkoan eta EAEn ere (%-0,9 eta %-1,4).

2024ko apirilarekin alderatuta, Gipuzkoako eta EAEko langabeen kopuruak ere behera egin du (% -3,1 eta %-2,5), baina jaitsiera horiek Donostiakoak baino apalagoak dira (% -5,2).

Langabezia tasa EUSTATEN arabera (2025 1. hiruhilekoa)

Lanbiden erregistratutako langabezia-indizea kontuan hartu beharrean (7,2 martxoan), EUSTATEk hiru hilean behin argitaratutako langabezia-tasa hartzen badugu erreferentziazat (Biztanleria aktiboaren jardueraren arabera estatistika), berriz ere ikusten dugu Gipuzkoa dela, 2025ko lehenengo hiruhilekoan, langabezia-tasarik txikiena duen lurralde historikoak. Euskal hiriburuen artean berriz Gasteiz da Langabezia tasa txikiena duena.

LANGABEZIA TASA (EUSTAT): 2024ko lehenengo hiruhileko datuak.

	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Gipuzkoa	5,4	6,1	5,7
Donostia	7	7,2	7,1
Bizkaia	8	8	8
Bilbo	8,7	9,3	9
Araba	5,8	6,5	6,1
Gasteiz	6,4	6,7	6,5
EAE	6,8	7,1	7

Eustatek, Lanbidek ez bezala (Lanbide-ren bulegoetan izena emanda dauden eta enplegu-bilaketa aktiboa egiten duten pertsonak hartzen ditu kontuan), langabetzat hartzen ditu lana aktiboki bilatzen ari diren 16 eta 74 urte bitarteko pertsonak, hau da, azken 4 asteetan lana bilatzeko kudeaketak egin dituztenak (Lanbideren bidez edo beste edonola). Galdeketa baten bitartez egiten da neurketa eta unitate txikitik desglosatzeari zehaztasuna galtzen du neurketak.



JARDUERA-TASA (EUSTAT, 2025ko lehenengo hiruhilekoa).

	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Gipuzkoa	60,7	53,3	56,9
Donostia	61	53,5	56,9
Bizkaia	59,4	51,5	55,2
Bilbo	60,4	51,8	55,9
Araba	62,2	51,4	56,6
Gasteiz	62,4	50,5	56,2
EAE	60,2	52	56

OKUPAZIO-TASA (EUSTAT, 2025ko lehenengo hiruhilekoa).

	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Gipuzkoa	57,4	50,1	53,6
Donostia	56,7	49,6	52,8
Bizkaia	54,6	47,3	50,8
Bilbo	55,1	47	50,9
Araba	58,6	48	53,2
Gasteiz	58,4	47,1	52,6
EAE	56,1	48,3	52,1

Langabeziaren banaketa, adinaren eta generoaren arabera



Apirilean langabeen kopuruak behera egin du adin-tarte guztietan. Horrela, 2025eko apirilaren 30ean, Donostiak honako hauek ditu:

- 55 urtetik gorako 2.276 langabe erregistratu dira Lanbiden (-30 martxoaren aldean).
- 45 eta 54 urte bitarteko 1.497 langabe erregistratu dira Lanbiden (-17 martxoaren aldean).
- 35-44 urte bitarteko 1.158 langabe erregistratu dira Lanbiden (-12 martxoaren aldean).
- 25 eta 34 urte bitarteko 1.103 langabetu erregistratu dira Lanbiden (-36 martxoaren aldean).
- 25 urtetik beherako 475 langabe erregistratu dira Lanbiden (-38 martxoaren aldean).

LANGABEZIA SEXUA ETA ADINAREN ARABERA:

	Gizonak	Emakumeak	Arrakala
25 urtetik beherakoak	% 58,5	% 41,5	-17,1
25 eta 34 urte bitartekoak	% 46,1	% 53,9	7,9
35 eta 44 urte bitartekoak	% 38,6	% 61,4	22,8
45 eta 54 urte bitartekoak	% 43,0	% 57,0	13,9
55 urtetik gorakoak	% 42,0	% 58,0	15,9

Emakume langabeen kopurua gizonena baino handiagoa da adin-tarte guztietan, 30 urtetik beherakoetan izan ezik.

EMAKUMEEN ENPLEGUAREKIKO EGOERA:

Genero-berdintasunean aurrerapenak izan diren arren, emakumeen langabezia-tasa handiagoa da gizonena baino, eta horrek adierazten du oraindik ere oztopoak eta genero arrakalak daudela lan merkatuan, emakumeek lana lortzea eta karrera profesionalen aurrera egitea oztopatzen dutenak.

Hori are nabarmenagoa da pertsonen beste familia erantzukizun batzuei aurre egiten dieten adin-tarteetan, hala nola seme-alaben edo beste senitate batzuen zaintza.

Testuinguru horretan, datu historikoek erakusten dute langabeziaren kronifikazioa dagoela 35 urtetik gorako emakumeen kolektiboan.

Egoera horrek 35 eta 45 urte bitarteko emakumeei eta 55 urtetik gorako emakumeei eragiten die batez ere, denbora luzean generoen arteko aldea 14 ehuneko-puntutik gorakoa baita.

Zehazki, apirileko datuen arabera, 35-44 urteko emakumeen kasuan, genero-arrakala ehuneko 22,8 puntukoa da (+ 1,8 ehuneko puntu martxoaren aldean).


Horren arrazoia izan daiteke adin tarte hori aitatasun, amatasun eta seme-alaben heziketarekin asoziatzen dela. Era berean, badirudi tradizionalki emakumeei seme-alaben zaintza eta heziketan erantzukizun handiagoa esleitu dieten genero-erolek indarrean jarraitzen dutela, azken urteetan berdintasunean aurrera egin duten arren. Ondorioz, emakumeek lan-merkatuan duen parte-hartzeak eragina izaten jarraitzen du.

Donostiako hiritarren artean, nahiz eta, batzaz beste, emakumeek gizonen baino ikasketa maila altuagoa izan, goi-mailako ikasketak dituzten emakume langabeen ehunekoak (Lanbide Heziketa eta unibertsitatea) nabarmen gaitzitzen du hezkuntza-maila bera duten gizonen adin tarte guztietan.

Gainera, adin-tarte guztietan (batez ere 45 urtetik gorakoetan adin-tarteetan) gizonen baino emakume gehiago kontratatzen badira ere, aurrerago ikusiko dugun bezala, datuek bide ematen digute pentsatzeko emakumeen enplegua lortzea zailtzen duten oztopo eta arrakala horiek ere eragina dutela kontratazio-motan.

Beraz, emakumeen sinatutako kontratuen partzialtasuna gizonen baino ia ehuneko 16,5 puntu handiagoa da.

Pertsona langabetuen hezkuntza maila




Langabeen % 43,5ek derrigorrezko ikasketak ditu bakarrik. Hala eta guztiz ere, langabeen % 18,1k unibertsitate-ikasketak ditu (Gipuzkoan eta EAEn baino ehuneko 6,7 puntu gehiago, gutxi gorabehera).

Gipuzkoarekin eta EAEekin alderatuta, Donostiako langabetuak kualifikazio handiagoa du (gehiago dira unibertsitate-ikasketak dituzten langabeak, eta gutxiago, soilik, derrigorrezko ikasketak dituztenak).

Proportzioan, gizon langabe gehiago daude oinarritzko ikasketak dituzten emakume langabeak baino. Hala ere unibertsitate-ikasketak dituzten emakume langabeen proportzioa nabarmen handiagoa da ikasketa-maila bera duten gizonena baino. Beraz, eskura ditugun datuetan oinarrituta, esan genezake **Donostiako langabeen artean, oro har, emakumeek gizonek baino kualifikazio handiagoa dutela.**

Langabeek gehien eskatzen dituzten lanbideak



PERTSONA LANGABEAREN PROFILA:




	Donostia	Gipuzkoa	EAE
45 urtetik gorakoak	%57,9	%54,6	%55,1
35 urtetik beherakoak	%24,3	%25,8	%25,0
Iraupen luzeko langabezia	%43,9	%45,2	%49,3
Atzerritarrak	%15,6	%20,9	%19,5
EB-ko atzerritarrak / Atzerritarrak	%16,7	%16,0	%14,9
Unibertsitateko ikasketak dituztenak	%18,1	%11,3	%11,4
DBHra arteko ikasketak dituztenak	%43,5	%52,6	%55,1

Gipuzkoarekin eta EAEekin alderatuta, honako hau nabarmendu behar da:

- *Proportzioan, Donostiak 45 urtetik gorako langabe gehiago ditu.*
- *Proportzioan, Donostian gazteen langabezia txikiagoa da.*
- *Proportzioan, Donostiak EAEk eta Gipuzkoak baino atzerritar jatorriko langabe gutxiago ditu.*
- *Donostian, EBtik datozen atzerritar langabeen proportzioa, atzerritar jatorriko langabeen guztizkoari dagokionez (% 16,1), Gipuzkoakoan erregistratutakoa (% 15,8) eta EAEn erregistratutakoa baino handiagoa da (% 14,7).*

Langabeek gehien eskatzen dituzten okupazioen artean, enplegu-eskatzaileek Lanbideren bidez interesa agertu dutenak, zerbitzuen sektoreko okupazio kualifikatuak eta kualifikaziorik gabeko okupazioak nabarmetzen dira.

Sinatutako kontratuak eta kontratatutako pertsonak



Apirilean, emakume langabeen eta gizon langabeen kopuruak behera egin duen hilabetean, **emakumezkoen kontratazioa gizezkoena baino handiagoa izan da beste behin.**

Hala ere, **emakumeek sinatutako kontratuen ia erdiak lanaldi partzialekoak dira** (% 50,5), eta **gizonek sinatutako kontratuen % 34,1 baino ez dira mota horretako kontratuak.**

Azkenik, **kontratatutako pertsona guztietatik, % 11,9 emakume atzeritarrak ziren** (atzeritarrak Donostiako biztanleria osoaren % 10,6 dira).

Apirilean 6.473 kontratu sinatu dira, hau da, martxoan baino % 12,8 kontratu gutxiago (957 kontratu gutxiago).

2024ko apirilaren aldean, 725 kontratu gutxiago sinatu dira, hau da, kontratazioak % 10,1 egin du behera.

	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Hileko kontratuak guztira	2.868 %44,3	3.605 %55,7	6.473
Aldi baterakoak	2.078 %42,9	2.767 %57,1	4.845
Mugagabeak	790 %48,5	838 %51,5	1.628
Lanaldi partziala	978 %34,9	1.823 %65,1	2.801
Lanaldi osoa	1.890 %51,5	1.782 %48,5	3.672

Kontratu horiekin 4.796 pertsona kontratatu dira, hau da, martxoan baino % 8,2 gutxiago (489 pertsona gutxiago).

2024ko apirilaren aldean 386 pertsona gutxiago kontratatu dira, hau da, kontratatutako pertsonen kopuruak % 7,4 egin du behera..


Batez beste, kontratatutako pertsona horietako bakoitzak 1,3 kontratu sinatu ditu urtarilean.

	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Kontratatutako pertsonak guztira	2.119 %44,2	2.677 %55,8	4.796
Sinatutako kontratuen ratioa	1,4	1,3	1,3
24 urtetik beherakoak	564 %44,3	708 %55,7	1.272
25 eta 34 urte bitartekoak	636 %46,2	740 %53,8	1.376
35 eta 44 urte bitartekoak	376 %43,2	495 %56,8	871
45 eta 54 urte bitartekoak	366 %43,6	473 %56,4	839
54 urtetik gorakoak	177 %40,4	261 %59,6	438
Atzeritarrak	477 %45,6	569 %54,4	1.046

Nabarmendu dezakegu:

- Adin-tarte guztietan kontratatu dira emakume gehiago gizon baino.
- Sinatutako kontratuen % 25,1 mugagabeak ziren (otsailean baino ia ehuneko 2 puntu gehiago).
- Sinatutako kontratuen % 43,3 lanaldi murritzukoak dira. Kontratu horiek gehienbat emakumeek sinatzen dituzte (kontratu horien % 66).
- Kontratuen % 55,2 35 urtetik beherakoek sinatzen dituzte.
- Kontratuen % 26,6 45 urtetik gorakoek sinatzen dituzte. Horietatik % 57 emakumeak dira.
- Kontratatutako pertsonen % 21,8 atzeritarrak ziren. Gainera, kontratatutako atzeritar jatorriko pertsonen % 54 emakumeak ziren.

Kontratuak sektore nagusien arabera¹



OSTALARITZA

- Sektoreak hiriko kontratazioan duen pisua nabarmenki handitu du eta hirian sinatu diren **kontratu guztien % 19,5** sinatu ditu (%13,7 otsailean eta %17,3 martxoan).
- Hiriko **kontratu mugagabe guztien % 36,1** sinatzen ditu (% 23,7 otsailean eta % 30,3 martxoan). Beste behin, **sektore horretan sinatu da kontratu mugagabeen bolumen handiena**, 588 kontratu mugagabe (538 martxoan).
- Ostalaritzan sinatutako kontratuen % 46,5 mugagabeak dira** (% 44 otsailean, % 42 martxoan)
- Kontratazioaren **partzialtasuna murriztu egin da ostalaritza sektorean**. Sinatutako kontratuen % 51,3 lanaldi partzialekoak dira (% 57 urtarilean, % 62 otsailean eta % 57 martxoan).

MERKATARITZA

- Hiriko kontratuen % 13 sinatu ditu** (% 13,7 otsailean eta % 9,9 martxoan).
- Hiriko kontratu mugagabeen % 14,7** (% 15,4 otsailean eta % 12,1 martxoan) eta **lanaldi partzialeko kontratuen % 19,4** sinatu ditu (% 17 otsailean eta %14,1 martxoan).
- Merkataritzan sinatutako kontratuen % 28,5 mugagabeak dira** (% 26 urtarilean, %30 otsailean eta %29 martxoan).
- Merkataritzan erregistratutako kontratuen % 64,6 lanaldi partzialekoak dira** (% 67 otsailean eta %63 martxoan).

¹**SEIC:** SEIC terminoak "Ezagutzako Zerbitzu Intentsiboak" kontzeptuari egiten dio erreferentzia, balio erantsi handia erakusten duen zerbitzu-tipologia. SEICak, era berean, **pertsonei zuzendutako SEICetan** (hezkuntza eta osasuna) eta **enpresei zuzendutako SEICetan** banatzen dira (ingeniaritzako, ikerketako, aholkularitzako, sormeneko jarduerak intentsiboetako eta abarretako jarduerak).

SERVICIOS OPERATIVOS Sektore hauek biltzen ditu: garraioa eta biltegiatzea (395kontr.), finantza- eta aseguru-jarduerak (28 kontr.), higiezin-jarduerak (8 kontr.), administrazio-jarduerak eta zerbitzu osagarriak (980 kontr.), administrazioa publikoa (35 kontr.), beste zerbitzu batzuk (81kontr.) eta etxeetako jarduerak (52 kontr.).

KONTRATU MUGAGABEAK SEKTOREKA:

	GUZTIRA	Gizonak	Emakumeak
Lehen sektorea	1 (%0,1)	%0,0	%100,0
Eraikuntza	62 (%3,8)	%88,7	%11,3
Industria	30 (%1,8)	%76,7	%23,3
ostalaritza	588 (%36,1)	%53,6	%46,4
Merkataritza	240 (%14,7)	%38,8	%61,3
SEIC - PERTSONAK			
Hezkuntza	64 (%3,9)	%29,7	%70,3
Osasuna eta gizarte zerb.	131 (%8,0)	%19,1	%80,9
SEIC - ENPRESAK			
Zerbitzu operatiboak	190 (%11,7)	%49,5	%50,5
	322 (%19,8)	%51,6	%48,4

JARDUNALDI PARTZIALEKO KONTRATUAK SEKTOREKA:

	GUZTIRA	Gizonak	Emakumeak
Lehen sektorea	1 (%0,0)	%100,0	%0,0
Eraikuntza	6 (%0,2)	%100,0	%0,0
Industria	38 (%1,4)	%65,8	%34,2
ostalaritza	648 (%23,1)	%39,4	%60,6
Merkataritza	544 (%19,4)	%33,1	%66,9
SEIC - PERTSONAK			
Hezkuntza	183 (%6,5)	%19,7	%80,3
Osasuna eta gizarte zerb.	526 (%18,8)	%16,3	%83,7
SEIC - ENPRESAK			
Zerbitzu operatiboak	226 (%8,1)	%45,6	%54,4
	629 (%22,5)	%45,5	%54,5

Behin-behinekotasunak oso handia izaten jarraitzen du hirian; Donostian sinatzen diren 10 kontratutik 2,5 baino ez dira mugagabeak (aurreko hilabeteetako maila berdina).


Behin-behinekotasuna jarduera-sektore hauetan nabarmentzen da batez ere: Industria, hezkuntza, eta osasun / gizarte zerbitzuen sektorean (sektore horietan sinatutako kontratuen % 87, % 82, eta % 88 aldi baterakoak dira, hurrenez hurren).

Lanaldiaren partzialtasuna bereziki garrantzitsua da ostalaritzan, merkataritzan, hezkuntzan eta lehen sektorean. Gainera, osasun sektorean, non kontratuen % 47 lanaldi partzialekoa den, mota honetako kontratuen % 84 emakumeek egiten zaizkie (oso sektore feminizatua dugu honako hau).

Emakumeek ez dute ia presentziarik industriak (%23) eta eraikuntzak (% 10) eskaintutako kontratazioan. Hala ere, hezkuntzako kontratuen % 77 eta osasun-sektoreko kontratuen % 76 emakumeen kolektiboarentzat dira.

DSBEaren hartzaileak


Apirilean zehar **3.556 pertsonak jaso zuten DSBEa hirian** (martxo baino 51 pertsona gehiago).



Nabarmendu daiteke:

- DSBEa jaso zuten pertsonen **% 59,3 emakumeak dira**.
- 55 urtetik gorako pertsonak DSBE jasotzen dutenen % 48,3 dira**.
- DSBEa jasotzen dutenen % 22,2k lanaren osagarri gisa jaso dute.
- Donostian DSBE jasotzen dutenen % 29,6 goi-mailako ikasketak zituen (Lanbide Heziketa edo unibertsitateak).
- Gipuzkoarekin eta EAEREkin alderatuta, nabarmentzekoa da Donostiako DSBEa jasotzen duen pertsonak adin eta kualifikazio handiagoa izateko joera duela.

DSBEaren hartzaileak auzoaren arabera



DSBE-AREN HARTZAILEAREN PROFILA:

	Donostia	EAE	Gipuzkoa
16 - 19 urte	%0,5	%0,9	%0,5
20 - 24 urte	%2,5	%2,7	%2,7
25 - 29 urte	%4,6	%5,2	%5,1
30 - 34 urte	%6,4	%7,7	%7,5
35 - 39 urte	%8,4	%9,6	%9,3
40 - 44 urte	%9,1	%10,6	%10,5
45 - 49 urte	%10,0	%11,5	%10,8
50 - 54 urte	%10,3	%11,2	%10,8
55 urtetik gora	%48,3	%40,6	%42,7
barrutitik kanpora	-	-	-
Derrigorrezko ikasketak	%53,8	%61,1	%58,8
Batxilergoa	%8,6	%6,8	%6,8
Lanbide Heziketa	%22,0	%18,1	%20,4
Unibertsitatea	%7,6	%4,6	%4,9
Informaziorik gabe	%8,0	%9,4	%9,1
Lanaren osagarritasuna	%22,2	%20,9	%22,0
Oinarrizko DSBE modalitatea	%77,8	%79,1	%78,0
Gizonak	%42,0	%42,1	%42,0
Emakumeak	%59,3	%57,9	%58,0

DSBE-AREN HARTZAILEAK AUZOAREN ARABERA:

Auzoak	Hiritar kopurua	DSBEaren hartzaileak	Auzokide guztiekiko %
Aiete	14.066	133	%0,95
Altza	19.517	572	%2,93
Amara Berri	29.377	423	%1,44
Antiguo	13.754	129	%0,94
Añorga	2.448	34	%1,39
Ategorrieta-Ulía	3.874	69	%1,78
Centro	21.352	344	%1,61
Egia	14.208	345	%2,43
Gros	17.563	279	%1,59
Ibaeta	9.721	124	%1,28
Igeldo	1.040	5	%0,48
Intxaurrondo	15.010	515	%3,43
Loiola	6.073	180	%2,96
Martutene	2.592	79	%3,05
Miracruz-Bidebieta	8.565	299	%3,49
Miramón-Zorroaga	2.302	24	%1,04
Zubieta	292	1	%0,34